

MAILOPE

267

2019ko martxoa

TOKIKOM

**PARTE HARTUZ,
ELKAR ERAGINEZ**

EGIN ZAITEZ IBARBERRIKO BOLUNTARIO!



2020 URTEKO UDAZKENEAN EGINGO DA EUSKARALDIAREN BIGARREN EDIZIOA

Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea xede izan duen Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa 2020 urteko udazkenean egingo da. 2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3a artean egin den ekimenaren lehen edizioaren bukaeran "jarraipena izango duen ariketa" izango zela azpimarratu zuten Euskaraldiaren sustatzaile diren erakunde eta eragileen ordezkariak eta jadanik bigarren edizioa prestatzeko lehen urratsak ematen ari dira koordinazio lanetan ari diren erakundeak.

Xehetasunak lantzen ari baldin badira ere, bigarren Euskaraldiak bi ardatz izango dituela aurreratu dute sustatzaileek: batetik, lehen edizioan protagonista izan diren ahobizi eta belarriprest rolen bitartez Euskal Herri osoko herritarrei beraien harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzeko deia egingo zaie; bestetik, bigarren edizioa berrikuntza modura, era guztietako entitateei beraien funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko urrats zehatzak ematea bultzatuko du Euskaraldiak. Erakunde publiko, enpresa, komertzio, elkarte eta gizarte eragileak izango dira bigarren ardatz honetan konpromiso zehatzak hartu eta gauzatuko dituzten entitateak.

Herritarrei eta entitateei deia

Hizkuntza ohiturak eta inertzia aldatzea epe luzeko lana dela jakitun, berriro ere ahobizi edo belarriprest modura jokatzeko gonbite bateratua egingo zaie herritarrei. Jakina denez, Euskaraldiaren lehen edizioa ariketa masiboa izan da eta bigarrean herritarrei euskararentzako harreman eta eremu berriak irabazten jarraitzeko deia egingo zaie.

Horretarako, ahobizi eta belarriprest rolerik izango dute berriro protagonismoa eta ikurren bidez identifikatzea izango da ariketaren elementu garrantzitsuetako bat. Erabilitako ikurrek (txapak izan ziren ariketaren ikur nagusia) segida izango dute.

Entitateek, berriz, funtzio aktiboagoa izango dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Aurrekoan 200 entitatetik gora izan ziren ekimenaren sustatzaile (milaka, herrietako elkarte, erakunde eta eragileak kontuan hartuta). 2020an, aldiz, urrats bat aurrera egin eta entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta praktikak babesteko konpromiso zehatzak hartzeko eskaria egingo zaie parte hartzen duten entitateei. Urrats hauek eskatuko duten aurre-lana aintzat hartuta, 2019 urtean bertan hasiko dira entitateak neurriak hartzen eta herrietako batzordeak lanean.

Lehen edizioaren emaitza

Azaroaren 23a eta abenduaren 3a artean egindako ariketaren emaitzak jasotzen ari dira asteotan, herriz herri eta hainbat entitatetan antolatuta egon diren batzordeen balorazioak jasoz. Horrekin batera, Euskaraldiko parte hartzaileen datuen azterketa egin du Gaindegia behategiak Euskaraldiaren antolatzaileen enkarguz.

Izena eman duten 220.000tik gora belarriprest eta ahobizien azterketa egin da, herri, eskualde eta lurraldekako datuak hainbat aldagairekin erkatuz. Emaitzak ekimenaren webgunean aurkitu daitezke <https://euskaraldia.eus/parte-hartzea/> web orrialdean.

Azkenik, Soziolinguistika Klusterrak gidatutako ikerketa ere martxan da (martxoan jasoko dute partaideek azken galdetegia) eta udan ezagutu ahal izango dira Euskaraldiaren lehen edizioak izan duen eraginaren emaitzak.

Euskaltzaleen Topagunea

LOTSA ETA HASERREA!

Amavirrek eta Beteluko Udalak berriki "Loturarik gabeko zentroen ziurtagiria" jaso duenaren albistea irakurrita eta enpresako zuzendaritza Udalaren eskutik sari hau jasoz ikusita, lotsa eta sumina sentitzen dugu. "Langileen esklabotzarako saria" beharko lukeelako izan.

Langileen bizkar nekatuetan erortzen den saria da, gu baikara egiaz erabiltzaile hauetaz arduratzen garenak, gu baikara enpresari eta udalari axola ez zaien bizi kalitate txarraren zama daramagunak. Ez zaie axola lruñeko zentroekin alderatuta ditugun baldintza ezberdintasunak, ezta daukagun lan karga guztia (Nafarroako Gobernuarekin duen kontratuan ezartzen diren ratioak bete gabe) eta saritua izan den programa honen guregan dituen ondorioak ere. Axola zaien bakarra euren paretak zigiluz eta kalitatezko sariz betetzea eta hedabideetan ateratzea da.

Lan baldintzen kalitatea 1.000 eurora iristen ez diren soldatetan eta Nafarroako beste edozein enpresa edo egoitzatan baino 100 ordu gehiagotan oinarritzen da, besteak beste.

Eta bien bitartean, Udala ez da inplikutzen. Aldiz, ederki esku hartu zuen enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritu eta gu Estatuko hitzarmenean sartzeko.

Enpresarekin soilik inplikutzen dela esan liteke eta ez langileekin. Hau da, herriarekin ez du konpromisorik hartzen, ustez herria ordezkatu beharko lukeen udal batek. Eta hala erakusten du azkeneko urte hauetan informazio ekonomikoa ukatuz, enpresarekin batera hirurok (enpresa, udala eta langileok) elkartzeko aukera ukatuz eta gure elkarretaratze, greba eta abar luze batekin inplikatu gabe.

Amavir Beteluko langileak

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Ioseba Goikoetxea.

06 ELKARRIZKETA: Talde elkarreragileak.

12 ELKARRI MOKOKA

13 KUXKUXEAN: Martxoko zorion agurrak.

14 BATZARRE

17 ZABAL

18 ERREPORTAJEA: Eskola garraioa.

22 KULTURA: Ihauteriak.

27 KIROLA

28 PLAZATIK PLAZARA

30 KORRIKA

31 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Amaia Mikeo, Lontxin Zubillaga, Agustin Saralegi, Idoia Igoa, AEK euskaltegia, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Maixabel Huarte, Beteluko Udala eta Rafa Etxarri.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



Aita, zuk ere zaintzea gustatzen zait

Ibarberriko 3. B mailako ikasleek ekimen bat burutu dute zaintza lanen inguruko kontzientzia sustatzeko. Izan ere, Nafar Gobernuako Skolae-ko ikastaroaren baitan parekidetasuna lantzen ari gara. Ekimen honen helburua, batik bat, ikasleei etxeko lanetan parte hartzea ezinbestekoa dela

eta, bestetik, zaintza-lanak eta etxeko lanak familiako kide guztien ardura direla jakinaraztea izan da. Ekimen honi erakusketa batekin eman zaio amaiera, eta orain Ikastetxeko sarrean duzue ikusgai. Animatu eta etorri ikustera!



Emakume ospetsuen ekarpenak

Era berean, azken egun hauetan erakusketa berri bati eman zaio bide. Hots, ikasleak emakume ospetsuen erakusketa antolatzen aritu dira. Historian zehar emakume anitz izan dira gizateriari ekarpen garrantzitsuak egin dizkietenak. Proiektu berri honetan, emakume asmatzaile eta zientzialari horiek izan ditugu ardatz nagusi. Euren biografiak idatzi eta argazkiarekin batera, ikastetxeko sarreran jarri ditu-

gu ikusgai. Emakume horien artean gure inguruko bi gazteen ekarpenak ere kontuan izan ditugu: Naiara Perurena Aizkorbe eta Nerea Zabaleta Cabezon. Biak leitzarrak eta biak zientzialariak (Biokimikan doktoreak) dira, hain zuzen. Egun, bi emakume gazte hauek Bostonen (Estatu Batuak) ari dira lanean minbizia sendatzeko ikerkuntzan. Ibarberri ikastetxetik zorianak bie!

Ibarberriko 3. B mailako ikasleak

eskolatik mailopera



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO



BIDEGO X JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



GAZTE ZENTROA

Lekunberriko Udalak 500.623,56 euro bueltatu behar izan dizkio Nafarroako Gobernuari Gazte Zentroarengatik jasotako diru-laguntza emate-rako orduan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik. Horrek herritarrentzako sortu dituen ondorioak nabarmendu ditu EH Bildu alderdiko udal taldeak.



SANTA AGEDA BEZPERA EURITSUA

Joan den hilaren 4an, koplakantari ibili ziren herritarrak, Lekunberri, Etxarrin, Aldatzen eta Arriben. Egun euritsua egin arren, heldu zein gaztetxoek irten ziren kalez kale abestera.



GAZTE AISIALDIA


Euskara Zerbitzuak Gizarte Zerbitzuekin batera bi ekintza antolatu ditu hilabete honetarako. Saltin-era irteera izanen da martxoaren 4an DBH 1etik DBH 4ra bitarteko ikasleentzako. Bestetik, martxoaren 23an, 20:00etatik 23:00etara, DBH 1 eta DBH 2ko ikasleentzako ur-festa antolatu dute Lekunberriko igerilekuan.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Ioseba Goikoetxea (Gorriti)

**Negua ona doa
Azindarentzako
elurra neurrian ta
hegoa galako
hori eroso da
jabearentzako
halare adi daude
udaberrirako**

**Uda garaia bada
sobera lehorra
neguan kazkabarra
ta haize gogorra
nausia berriz badu
oso egoskorra
sufritzen biziko da
mendiko behorra**

Doinua: Iturengo arotza.



**Haydee Calderonentzako puntua:
Berriz ere hemen da
Gurean korrika**

**Puntuak:
Aldarria, belarria, egarria eta larria.**

“Talde elkarreragileetan, boluntarioak moderatzaile lana egin behar du”

Orain urte batzuk ekin zioten Ibarberri ikastetxean Talde elkarreragileen saioak egiteari, baina dinamika ikastetxeko maila guztietara zabaldu dute eta boluntario gehiagoren bila dabiltza. Nerea Labayen zuzendariarekin eta Iñigo De Carlos irakaslearekin izan gara.

Zenbait urte daramatzazue dagoeneko Talde elkarreragileak antolatzen...

Iñigo: Sei edo zazpi urte izanen dira hasi ginela.

Nerea: Maria Victoria Urtasun irakasle ohiak ekarri zuen Talde elkarreragileen proiektua Ibarberriera. Berak urte sabatikoa hartu zuen eta Mendigorriako eskolara joan zen boluntario. Mendigorriako ikastetxeak urteak daramatza Ikas komunitate izaten eta horren baitan halako jarduerak egiten. Maria Victoriak han ikusitako zenbait gauza martxan jarri zituen bere gelan. Talde elkarreragileak beste beste. Bere gelako ikasleen gurasoekin egiten hasi zen. Bosgarren mailan.

Eta ondoren, Ikas komunitatea sortu zenutenean, beste geletara zabaltzen hasi zineten?

Iñigo: Bai. Maria Victoria hasi zenean,

“Boluntarioek ez dute zertan guraso edo senideak izan, edonork parte hartu dezake”

nik bere saioetan parte hartzen nuen eta ondoren, neroni seigarren mailako nire ikasleekin egiten hasi nintzen.

Nerea: Ondoren, hirugarren ziklo osora zabaldu zen.

Iñigo: Eta gero laugarren mailakoak animatu ziren...

Nerea: Bai. laz Ikas komunitatea sortzea erabaki genuen eta gaur egun denek egiten dituzte Talde elkarreragileak. Hiru urtetatik hasi eta DBH 2. mailara arte.

Zenbatero egiten dira saio horiek?

Nerea: Familia eta boluntarioekin gutxienez astean behin egiten dugu. Baina horrez gain, jarduerak berak ongi funtzionatzen duenez, eta ikastetxeko antolamenduak ahalbidetzen duenez, tarteka irakasleren bat libre dagoenean, beste gela batean sartzen da eta bi irakasleekin egin ohi dute. Bi talde irakasle banarekin eta beste bi taldetxori eurak bakarrik egin dezaten uzten zaie, modu autonomoan lan egin dezaten.

Edozein ikasgarekin egin daiteke?

Nerea: Bai. Gainera, normalean, saio berean jarduera oso desberdinak jartzen dira eta batzuetan, tutoreak eskatuz gero, adibidez ingeleseko irakasleak ere parte hartu dezake eta berarekin ingeleseko ariketa bat egin.

Iñigo: Azken batean, txikitako txokoak balira bezala planteatzen dira saioak. Ikasleak lau taldetan banatzen dira eta lau ariketa ezberdin dituzte egiteko. Ariketa bakoitza burutzeko hoge minutu dituzte eta hoge minutu horiek amaitzen direnean, hurrengo ariketa egiteko lekuz aldatzen dira. Eta normalean, ikasgai



ezberdinetako ariketak izaten dira. Baliteke egun batean ikasleek dituzten beharrak ikusita lau ariketak matematikakoak izatea, baina ez du zertan hala izan. Ipuinak erredaktatzea, gaztelarazko ariketak, inguruneko eduki bati buruzko eskema osatzea...

Eta boluntarioa?

Nerea: Boluntario bakoitzari ariketa bat egokitzen zaio saio bakoitzeko eta boluntarioa geldirik egoten da. Ikasleak dira 20 minutuero lekuz aldatzen doazenak. Hein batean horrek bihurtzen du dinamika hau entrete-nigarri.

Iñigo: Talde elkarreragileak egiteko eskola ordutegiko ohiko bi saio hartzen dira. Hau da, 100 minutu. Berez, 80 minutu izaten dira lanean ematen dituztenak, baina ariketak egiten hasi aurretik denbora behar izaten da boluntarioei azalpenak eman eta amaieran balorazio txiki bat egiteko. Gainera, beti baldintza hau betetzea ezinezkoa den arren, ariketak dialogikoak izan daitezen saiatzen gara. Hau da, ariketa egiteko beraien artean hitz egin eta denen artean erabaki behar dute nola egin.

Talde lanean egiteko ariketak dira beraz...

Iñigo: Bai, egin behar duten hori denen artean adostu behar dute. Adibidez, ipuin bat egin edo testuren bat idatzi behar badute, agian txandaka idaztea erabakiko dute, baina boligrafoa eskutan duen horrek ez du berak bakarrik erabakiko zer idatzi. Denen artean proposamenak botako dituzte eta zer jarri erabakitzen dutenean, orduan idatziko du.

Nerea: Helburua ez da ariketa bukatzea, ezta ondo egitea ere. Helburua denek batera egitea da, denek ariketan parte hartzea eta ulertzea. Amaitzeko denborarik ematen ez badu, berdin du.



Iñigo: Matematikako ariketa bat bada, agian bakoitzak bere paperean egin beharko du eragiketa, baina denen artean hitz egin beharko dute ariketa hori nola egin dezaketen. Eta baten batek ulertzen ez badu, gainerakoek ikaskide horri azaldu beharko diote eta dituen zalantzak argitu. Denek argi dutenean, orduan bai, bakoitzak bere eragiketa egin dezake. Baina denen artean adostutako plana jarraitzen da.

Eta zein da boluntarioaren eginbe-harra?

Nerea: Boluntarioak ez du zertan jakin ariketa nola egiten den, baina bere papera garrantzitsua da. Taldeko ikasle guztien parte-hartzea bermatu behar du. Ezin da ikasle bat ariketa egiteaz arduratu eta beste hirurak paretari begira egon. Edo baten bat hitz egitera ausartzen ez dela ikusten badu, animatu egin beharko du ("Eta zuk zer pentsatzen duzu?/ Zuk nola jarriko zenuke?.."). Moderatzaile lana egin behar du. Ariketa ongi egin duten edo asmatu ote duten, horrek berdin du, ondoren irakasleak ikusiko du hori.

Iñigo: Gainera, batzuetan, garrantzitsuena erabaki duten hori



Boluntario bakoitzari ariketa bat egokitzen zaio saio bakoitzeko. Arg: Labrit.

“Gehiago kontzentratzen dira eta saio arrunt batean baino lan gehiago egiten dute”



Ibarberri ikas komunitatea denetik, talde elkarrengileen proiektua maila guztietara zabaldu da. Arg: Labrit

izaten da, amaiera perfektua baino gehiago.

Edukiak kontrolatzeko beharrik ez, baina ni matematiketan edo hizkuntzetan oso txarra baldin baina eta beste ariketa mota batekin erosoago sentituko banintz... Boluntarioen irizpide horiek kontutan hartzen al dira, eskatuz gero?

Iñigo: Bai, baina normalean boluntarioak etorri ahala ohartzen dira, beraien papera ez dela edukiak menperatzea. Gertatu izan zait lehen aldiaren aurretik, zenbaitek ariketak e-postaz bidaltzeko eskatzea. Baina lehen aldiz etorri eta gero, ez zaie halakorik bururatzen.

Nerea: Maiztasun batekin egiten den dinamika izanik, eurak ere konfiantza hartzen joaten dira eta erosoago sentitzen.

Eta zein onura ditu horrela lan egiteak edo ikasteak?

Iñigo: Gehiago kontzentratzen dira

eta saio arrunt batean baino lan gehiago egiten dute. Hasieran kostatu egiten da, baina gero ohitu egiten dira eta dinamika horretan sartzen dira. Ikasturtearen hasieratik amaierara, alde handia ikusten da. Ariketa egiten dakitenentzako onuragarria da, ez dakienari azaldu beharko diolako eta horretarako ongi kontrolatu beharko du. Eta zalantzak dituztenek, besteei entzunez ikasi egiten dute.

Maratoi ortografikoak ere egiten dituzue...

Iñigo: Maratoi ortografikoa ere taldean egiten den jarduera bat da. Normalean, maila bereko bi geletako ikasleak nahasi eta taldeak osatzen ditugu. Hor ere, talde bakoitzak boluntario baten laguntza izaten du eta egun ezberdinetan egiten diren bi edo hiru saioetan zehar, gaztelarazko ortografia lantzeko ariketak egiten dituzte. Eta ondoren, probaren eguna iristen da. Entrenamendu saio horiek egin eta gero, ortografia proba

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa

948604607

Txooooo!

JUANLUZENEK
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

indibidualki egin beharko dute. Baita boluntarioek ere. Eta ondoren, bakoitzak ateratako notak jarri beharrean, taldeko partaideen artean lortutako puntuak batu egiten dira, talde irabazlea zein izan den jakiteko.

Boluntario gehiagoren bila zabilzate, batez ere Talde elkarreragileetarako... Zein profileko boluntarioa bilatzen duzue? Euskalduna behar du izan?

Nerea: Ez, berdin zaigu. Euskaraz ez dakiten gurasoek ere parte hartu ohi dute. Ez dago arazorik. Horiei adibidez, gaztelerazko ariketa bat edo bestelakoak jartzen zaizkie.

Egun eta ordutegi finkoetan egiten dira saioak?

Iñigo: Tutoreak bere ikasleekin bi saio jarraian dituzten egun eta orduak aprobetxatzen dira. 50 minutuko bi saio jarraian. Goizez nahiz arratsaldean egiten dira (09:00-10:40 edo 14:35-16:15). Egia da, gehienak, arratsaldean etorri ohi direla, baina boluntarioen ordutegietara egokitzen joaten gara. Azken batean, batez ere gurasoek, nahiko ordutegi mugatua izaten dute eta...

Nerea: Boluntario berriek izen ematen dutenean, astean zein egun eta ordutegitan posible duten galde-tuko zaie. Eta ondoren, gu arduratzen gara, talde elkarreragileen saioak antolatu eta boluntario bakoitzari berea egokitzeaz.

Orain arte boluntario gehienak ikasleen gurasoak izan dira...

Nerea: Bai, gela bakoitzeko ikasleen gurasoak gonbidatuz hasi gara, errazena zitzaigulako.

Iñigo: Kontua da, orain dela gutxi arte, gurasoekin nahiko ongi moldatzen ginela, baina dinamika hau maila guztietara zabaldu denetik, boluntario gehiagoren beharra dauka-



gu. Hiru seme-alaba dituzten gurasoentzako, ezinezkoa da seme-alaba bakoitzaren gelatan egiten diren saio guztietara etortzea.

Nerea: Boluntarioek ez dute zertan guraso edo senideak izan. Edozein herritarrek parte hartu dezake eta gainera aberasgarriagoa izanen da.

Eta boluntario izatera animatuko litzatekeen horrek non eman beharko luke izena?

Nerea: Ikastetxeko sarreran zerrenda bat dago, denon eskura izena emateko. Baina inor interesaturik egonez gero, ikastetxera bertara etorri beharrean telefonoz deituta ere eman dezake izena (948 50 42 10).

Ekitaldi bat ere baduzue aurreikusita martxoaren 22rako...

Bai, erakustaldi bat egin nahi dugu martxoaren 22an, 15:00etan, Lekunberriko Jubilatuetan. Asmoa da herritarrek gonbidatzea, Talde elkarreragileek nola funtzionatzen duten ikusteko. Bertan hainbat talde antolatuko dira eta zenbait ariketa egingen dituzte. Eta edonor ikustera hurbil daiteke. Ea horrela jendea probatzera animatzen den eta boluntario gehiago lortzen ditugun!

*Egin zaitetz boluntario!
Eman izena 948 50 42 10
telefono zenbakira deituta.*

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JAI MENTXETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA

Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

Allprox

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

“Oso esperientzia positiboa da, bai ikasleentzat eta baita boluntarioentzat ere”

Miren Goikoetxea, Karmele Fernandez eta Eva Astiz, Ibarberri ikastetxeko gurasoak izateaz gainera, zenbait urte daramatzate Talde elkarreragileetan parte hartzen.

Miren Goikoetxea aldaztarrak hirugarren urtea du hau, bi seme-alaba ditu: bat laugarren mailan eta bestea bigarren maila. Mugiroko Eva Astizek bezala. Karmelek hamabi eta bederatzire urteko alabak dauzka eta bigarren urtea du hau.

koordinatu eta ariketa egiteko antolatzen lagundu baino ez diegu egiten. Gainera, niri, ama bezala, gustatzen zait nire seme-alabak eskolan nola moldatzen diren ikustea, euren lagunekin nolako harremanak dituzten ikustea etab. Tutoreek bileretan kontatzen badizute ere, ezberdina da”.

Evak onartzen duen arren, zenbait egunetan kosta egiten zaiola ikastetxera etortzea, gero, oso gustura egoten omen da eta esperientzia oso aberasgarria iruditzen zaio. Gainera, euskaraz jakin arren, bere euskara hobetzeko modua ere bada. Karmeleren kasuan bezala. Bera euskaldun berria da, AEK euskaltegiko ikaslea eta Mintzakide taldeetako kidea. Euskaraz egiteko eman zuen izena neurri batean Talde interaktiboetan. Karmele: “Behin, ulermeneko ariketa bat egin behar izan zuten euskaraz eta ez nuen apenas ulertu, baina bestela ongi moldatzen naiz. Gainera, normalean, ariketa praktikoagoak aukeratzen uzten didate, hizkuntza arazoa izan ez dadin niretzat. Nire haurtzaroan ez dut nire ama halakoetan parte hartzen ezagutu eta uste dut haurrentzako ere oso esperientzia polita dela eta oroitzapen ona geldituko zaiela etorkizunean”.

Horretan hirurak bat datoz. Euren seme-alabak harro sentitu ohi dira euren gurasoek saio horietan parte hartzen dutenean. Miren: “Galdezka ibili ohi dira beti, ea noiz joan behar dudun. Nik jendea parte hartzera animatuko nuke, behintzat egun batez proba dezatela eta ondoren erabaki dezatela. Izanen dira ordutegi aldetik parte hartzeko aukera duten gazte eta erretiratuak ere eta oso esperientzia positiboa da, bai ikasleentzat eta baita boluntarioentzat ere”.

Astean behin etortzen dira, beti ordutegi berean. Eva: “Ni pertsonalki oso pozik nago. Hiru edo lau ariketa egiten dituzte eta asko aprobetxatzen dituzte saioak”. Mirenentzat zailena zenbait egunetan ikasleak kontzentratu mantentzea da, edo nekaturik daudenean denok parte hartu dezaten asmatzea.

Eva: “Talde guztietan egoten da besteen gaintik gailentzen den norbait eta baita lotsatiagoak edo isilagoak direnak eta gehiago kostatzen zaienak taldean hitz egitea edo besteei beren iritzia ematea. Guk, pixka bat

Karmele, Eva eta Mirenentzat esperientzia aberasgarria da. Arg: Labrit



Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia 2004an ateratakoa da Larraungo eskolako ikasleek Beirera egindako ateraldian.

Ezkerretik eskuinera eta atzetik aurrera:

Aiora Etxarri, Andoni Arozena, Jon Ander Unanua, Mikel Hernandezena, Beatriz Mariezkurrena, Joxerra Aldaregia, Iñigo Lasarte, Amaia Mikeo, Naiara Igartua eta Xabi Zabaleta.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidal iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Berriro ere bozkatzera



●● Mikel Hernandez

Aupa Pello! Zer moduz? Dagoeneko hauteskunde orokorretarako eta Nafarroako hauteskundeetarako prest? Dugun panorama ikusita, ez dakit egia esan gauza askorik aldatuko den, baina tira, zer egingo diogu ba! Ematen zuen aurreko mozio zentsurak zerbait aldatzeko balioko zuela, baina egia esan, mozio zentsuraren aurreko egoeran gaudela uste dut, faktore oso arriskutsua agertu den arren: eskuin muturraren presentzia.

Izan ere, badirudi VOXeatzaile arriskutsuak sartu direla panorama politikoa, adierazpen askatasuna mugatzearen eta autonomia murriztearen alde, eta diskurtso matxista, xenofobo nahiz arrazista batekin. Kezkatze-ko modukoa benetan, nire ustez. Eta are gehiago, kezkatzekoa da Madrilgo manifestaldian berez euren burua kontserbadorretzat duten alderdi batzuk VOXekoekin bat egitea. Andaluzian min asko egingo dute, eta hauteskunde orokorrak nahiz Nafarroako hauteskundeak hemendik gutxira izanda, ez dakit zein panorama izango den. Badirudi, Espainiako Errekonkistaren garaia berreskuratu nahi dituzten zaldun hauek ongi probestu dutela jendearen haserrea eta mezu erradikale bidez boza kopuru handia lortu dutela Andaluzian.

Hala ere, ez da nire kezka bakarra. Nafarroan eta Madrilan, Ahaldu Duguren baitako tirabirek ondorioak izango dituztela aurreikusten da, eta ez oso modu positiboan. Batzuek letaginak eta atzaparrak ondo prestatuak dituzte ezkerrearen baitako banaketa eta liskarrei probetxua ateratzeko. Ez dut imajinatu ere egin nahi zer litzatekeen Madrilan eta Nafarroan eskuina eta eskuin muturra batuta garaile ateratzea.

Emaitzak positiboak izatea espero dut, baina, hala ere, egoera ez da oso positiboa. Fanatismoaren gorakada nabarmena da Europan eta mundu osoan. Noraino iritsiko gara diskurtso fanatiko honen aldeko lider hauei hankak gelditzen ez bazaizkie? Behin korrika hasi direla oso arriskutsuak bilakatzen ari dira. Zuk nola ikusten duzu kontu hau, Pello? Hurren arte!



●● Pello Azpirotz

Ilepa Mikel!!! Ba egia esanez gero, hauteskunde hauek ez naute askorik motibatzen, gainera datorkigunak ez dauka oso itxura onik (zerbait egiten ez baldin badugu). Hilabete hauetan hauteskondeekin loturiko informazio "bonbardaketa" jasan beharko dugulakoan nago, PSOE-ren gobernuak gutxi iraun du agintean.

Eskuin muturraren gorakada aipatzen da orain dela gutxi sortu den zerbait izango balitz bezala.

Baina nire usteetan, eskuin muturra oso presentegon da Espainiar Estatuan aspaldidanik.

Politikoki zuzena izan beharraren "kareta" kendu dute batzuek eta argi eta garbi esaten dute pentsatzen dutena (Vox, PP eta Ciudadanosekin alderatuz).

Gainera, faltan botatzen ditut horrelako alderdien diskurtsoei modu irmoan eta argian aurre egiten dieten ezkerreko alderdiak. Podemos ez dago garairik hoberenean eta PSOE ezin da izan "ezkerreko" alternatiba nagusia (beren sigletatik S eta O aspaldi kendu beharko lituzkete). Adibide batzuk jartzearren, Grande-Marlaska ministroaren ardurapean zeuden 5 pertsona torturatuak izan ziren (Europar Batasuneko Giza Eskubideen epaimahaiak kondenatuak kasu hauek) epaile jardunean zebilela. Eta pertsona hau jartzen dute Barne Ministerioko buru? Seinale ona ahal da Pedro Sanchezek aukeratu zuen ekonomia ministroari Ana Botinek (Santanderreko lehendakariak) zoriontzea? Ez al gara gogoratzen PSOEek ere 155 babestu zuela?

Bati baino gehiagori entzun diot abstentzioaren aurkako jarrera, esanez ez baldin badugu bozkatzeko faxismoari puzten laguntzen diogula. Nire ustez bozkatu egin beharko genuke, baina ahaztu gabe aldaketak emateko kalean ere egotea ezinbestekoa dela. Ezin gara soilik hauteskunde egunean ematen dugun bozkan gelditu. Ukaezina da instituzioetan agintean dagoen eragina daukala guregan, baina nire iritiz, faxismoari kalean ere egin behar zaio aurre (jendea kontzientziatuz eta antolatuz). Etorkizuna aldatzeko garaiz gabiltza baina martxan jarri behar gara. Hurren arte!!!





Eros Paul Mendez Campos
Martxoaren 30ean, 10 urte.
*Ikaragarri maite zaitugu.
Zorionak! Zure guraso, arreba
eta izeben partez.*



Bittor Esnaola Sotil
Martxoaren 12an, 5 urte.
*ZORIONAK BITTOR!! Jada 5 urte!!
Primeran pasako duzulakoan zure
urtebetetze egunean, muxu handi
bat aita, ama eta Peruren partez.*

Uxue eta Yanua Lourido

Uxek martxoaren 10ean, 9 urte eta Yanuak
martxoaren 22an, 11 urte.
Zorionak bikote!!! Oso ondo pasa zuen eguna.



Jokin Mitxeltorena Eskamendi
Martxoaren 3an, 5urte beteko ditu
gure mutilak. Oso ongi pasa eta
muxu handi bat. Aitatxo, amatxo
eta Manex.



Aner Otermin Iriarte
Martxoaren 7an, 4 urte.
*Zorionak politte!! Ondo
pasa eguna!!! Segi
hain jator eta alaitua
izaten!!!! Muxu pottolo
bat Arribeko familiaren
partez, bereziki Elene,
Danel eta Eriken partez.*



Luzia Peña Jiménez
Otsailaren 19an, 11 urte.
*Zure jarrera perfektua da norabide
guztietan, segi aurrera eta ez ezazu
inoiz amore eman...
Ezberdina izatearen zortea duzu, ez
zaitez aldatu! Besarkada handi bat,
asko maite zaituzten zure gurasoen
partez.*

Jexux Altuna Otermin
Martxoaren 24an, 65 urte.
*Urte askotako Atte ta Attuna!!
Eun politte pasa, muxu haun-
diet etxeko guztin partez!!!*



Lander Flores Eskamendi
Martxoaren 30ean, 10 urte.
*Zorionak Lander!!!!
Ongi pasa zure egunean. Muxu bat etxe-
koen partez. Aita, Ama, Naroa eta Ibai.*



Uxue Jauregui Olano
Martxoaren 6an, 16 urte.
*Zorionak bihotza, ondo ospatu zure egu-
na. Jarraitu zaren bezalakoa izaten.
Muxu handi bat etxekoan partez.*



Iker Hernandorena Irisarri
Martxoaren 24an, 11 urte.
*Zorionak Iker!
Muxu handi bat eta ondo pasa!*



Arturo
Martxoaren 27an, urte bat.
Zorionak Arturo!!!!!!!

Aintzane Eskamendi
Otsailaren 5ean, 9 urte
bete zenituen Aintzane.
Oso ongi pasako zenu-
lakoan, muxu handi bat
etxekoan partez.



Unai Amoztegui Goikoetxea
Martxoaren 12an, 3 urte.
*Zorionak txapeldun! Ongi pasa eta muxu
potolo bat etxeko guztien partez!*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

BARRIKOTEA ESKAINIKO DU BETELUKO OSTATUAN MARTXOAREN 23AN

Datorren martxoaren 23an barrikote afaria izanen da Beteluko Ostatuan iluntzeko 20:00etatik aurrera. Sagardotegiko menua eskainiko dute, bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin, txuleta eta gazta irasagarra eta intxaurrekin. Gainera, sagardo kupela izanen da txotx egiteko! Afaria trikitilariak alaituko dute eta ondoren, goizaldera arte musika egonen da. Txartelak dagoeneko salgai daude 28 eurotan. Mugi zaitetz eta hartu zurea!



CEDERNA GARALUR ELKARTEAK HAINBAT IKASTARO ESKAINIKO DITU DATOZEN HILABETEETAN

Cederna Garalur Elkartek Nafar Lansarea eta Plazola Partzuergo Turistikoarekin elkarlanean martxotik ekainera bitarte bost ikastaro eskainiko ditu. Sare sozialak turismoan ikastaroan (martxoak 4, 11, eta 25 eta apirilak 1, 8, eta 15, 10:00etatik 14:00etara Plazola geltokian) sare sozialei etekina ateratzen irakatsiko da enpresen zerbitzuak hobeto ezagutarazi eta bezero gehiago erakartzeko.

Bestetik, atzerritik datozen turista kopurua geroz eta handiagoa dela kontuan hartuz, turismoaren eremuan erabiltzeko ingeles eta frantses profesionaleko bi ikastaro emanen dira.

Ingeleseko ikastaroa (martxoak, 6, 7, 13, 14, 20 eta 21 eta apirilak, 3, 4, 10 eta 11, goizeko 10:00etatik 12:00etar) Lekunberriko Plazola geltokian izanen da. Eta frantsesekoa berriz (maiatzak 6, 8, 13, 15, 20, 22, 27 eta 29 eta ekainak 3 eta 5, goizeko 10:00etatik 12:00etara), Leitzako udaletxeko ikasgelan.

Bestetik Ogasunarekin lotutako bi ikastaro eskainiko ditu Cedernak. Apirilaren 9an (10:00-14:00, Plazolan) Ogasunarekin lotutako izapideak behar bezala egiten ikasteko tailerra izanen da. Eta apirilaren 16an, leku eta ordu berean, izapideak online egiteko ikastaroa eskainiko da.

Informazio gehiago: 948 507 205 / 948 507 204.

MARTXOAREN 8AN 24 ORDUKO GREBA FEMINISTA EGITEKO DEIALDIA EGIN DUTE

Datorren martxoaren 8an izanen den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba feminista egiteko deialdia egin du. Iaz proposatutako lanuzteek izan zuten arrakastaren ondotik, aurtengoan 24 orduko greba egitera deitu dute eta euskal sindikatuak batu dira dagoeneko deialdira. Greba honekin instituzio publikoen benetako inplikazioa eskatzea da helburua, "politika feminista ausartak behar direlako, aurrekontu publiko nahiko eta errealekin". Emakume guztiak daude deituta soldatapeko zein doako lana egiteari utzi eta kalera ateratzera, pentsionistak, zaintza lanetan dabiltzanak, edozein enplegutuan dabiltzanak, ikasleak eta kontsumo greba egitea ere proposatzen da. Gainera, egun horretan tokian toki antolatuko diren ekintza eta mobilizazioetan parte hartzeko deia ere luzatu dute. Elkarretaratzeko deialdi nagusiak eguerdiko 12:00etan izanen dira eta arratsaldeko 19:00etan manifestazioak izanen dira Euskal Herriko hiriburuetan. Horrez gain, gurean ere hilabete osoko egitaraua antolatu du Mitxausenea Kultur Etxeak, Aralar Musika Eskola, Ibarberri, Larraun Berdintasunean eta Itxaro Elkartearekin batera. Eguerdiko hamabietan elkarretaratzea egingen da Lekunberriko udaletxearen parean eta ondoren Mendukilo kobetara bisita berezia egingen da. Arratsaldean Iruñeko manifestaziora joateko autobusa izanen da eta bertan gelditzen direnentzat Kantinan antzerkia eskainiko da. Ikusi egitarau osoa Agendan (31. orr.).

REPSOL GIDAREN EGUZKIA JASO DU MASKARADA JATETXEA

Lekunberriko Maskarada jatetxeak Repsol Gidaren Eguzki bat jaso du. 40 urte ditu dagoeneko Espainiar estatuko establezimendu gastronomiko onenak sailkatzen dituen gida honek eta dagoeneko 80 jatetxe ditu, horietatik 22 Nafarroako 14 jatetxetan banatuak. Lekunberriko Epeleta Erretegiak badu bere Eguzkia eta Maskaradak jaso berri duenarekin dagoeneko bi Eguzki ditugu gurean. Zorionak!

ERABAKITA DAUDE 2019KO NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALAURREKOAK



Otsailen zehar Nafarroako Bertsolari Txapelketako lau final-laurdenak jokatu eta gero, erabakita daude hiru finalaurrekoetan parte hartuko duten bertsolarien izenak. Martxoaren 3an Atarrabian, martxoaren 9an Etxarri Aranatzan eta martxoaren 10ean Lesakan jokatu dira saioak eta saio bakoitzeko irabazlearekin batera beste bost bertsolari sailkatuko dira martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko den finalera.

- **Martxoak 3:** ATARRABIA, Kultur Etxea, 17:30. Saats Karasatorre Martinez, Eneko Lazkoz Martinez, Sarai Robles Vitas, Aimar Karrika Iribarren, Xabi Maia Etxeberria, Joana Ziganda Olano.

- **Martxoak 9:** ETXARRI ARANATZ, Kultur Etxea, 17:30. Julio Soto Ezkurdia, Xabier Terreros Gartzia, Julen Zelaieta Iriarte, Diego Riaño Barroso, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Iban Garro Alzuri.

- **Martxoak 10:** LESAKA, Kultur Etxea, 17:30. Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Xabat Illarregi Marzol, Alazne Untxalo Erregerena, Saioa Alkaiza Guallar, Eneko Fernandez Maritxalar.

HERRITARREN EKARPENAK JASOTZEKO BILKURA EGINEN DU EH BILDUK MARTXOAREN 9AN

Eta hauteskundeak gerturaten hasiak direnez, udal alderdiak ere datorren legegintzaldirako hautagaien zerrendak osatzen eta herri programak erredaktatzen hasiak dira. Lekunberriko eta Larraungo EH Bilduk datorren martxoaren 9an, herritarren ekarpenak jasotzeko bilkura deitu du. Goizeko 10:00etan Mitxausean izanen da hitzordua eta bertan, herritarren ideia eta proposamenak ezagutu eta jaso nahi dituzte.

AURREKONTU-PARTE-HARTZAILEETAN PROIEKTUAK AURKEZTEKO AUKERA IZANEN DA MARTXOAREN 25ERA ARTE

Udal-legegintzaldia amaitzeaz dela, Lekunberriko Udalak 15.000 euroko aurrekontu partida bideratuko du herritarrek proposatutako proiektu baterako. Joan den otsailaren 25ean ireki zen aurrekontu parte-hartzaileetan proiektuak aurkezteko epea eta datorren martxoaren 25era arte egonen da aukera. Martxoaren 27an udaletxean aurkeztutako proiektuak publiko egingen dira eta aurrez bozkatzeko emateko aukera zabalduko da. Apirilaren 5ean, eguerdiko 15:00etan itxiko da bozketa. Eta zuk zertarako erabiliko zenituzten 15.000 euro Lekunberri?

ITXURA BERRITUAREKIN HASI DU URTEA BETELUKO OSTATUAK



Amaitu dira Beteluko Ostatuaren teilatuko berritze lanak. 183.000 euroko inbertsioa egin du Beteluko Udalak eraikinaren teilatua berritzen, baina ia %50 Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Inbertsio Planeko diru-laguntzarekin finantzatu du. Eta Dibertsifikazioa eta Energia Aurrezteko Institututik 60.000 euro inguruko beste diru-laguntza bat ere espero da.

Egurrezko egitura berria jartzeaz gainera, teila berriak jarri dira eta isolamendua ere jarri zaio. Koldo Kerejeta S.L. enpresa ataundarrari esleitu zitzaizkion berritze lanak. Mikel Rekalde, Beteluko Udaleko Alkatea: *"Eraikin honetan beste hiru lan gelditzen zaizkigu egiteko: Leihoak aldatzea, igogailua jartzea eta apartamentuak eraikitzea. Teilatua berritzearekin batera prest gelditu da 45 edo 50 metro karratuko lau apartamentu egiteko aukera"*. Udala oso gustora dago egindako lanarekin eta emaitzarekin. Lehen hiru aldeetako teilatua zena laukoa bilakatu da eraikinaren irudia edertuz.

LEHEN KONTZERTUA EMAN ZUEN FRONTOI BEREAN ESKAINI DU HERRIAN AZKENA BERRI TXARRAK TALDEAK

Berri Txarrak taldeak joan den ilbeltzean eman zuen albistek mutu utzi zituen zale asko. Joan den hilean taldekideek prentsurrekoa eskaini zuten Kantinean eta besteak beste argitu zuten, erabakia Gorkak hartutakoa izan zela, baina taldekideak ez zituela sorpresaz harrapatu eta Gorkak berak musikarekin jarraituko aurrerantzean ere. Oraindik kontzertu asko gelditzen dira iragartzeko, baina taldeak iragarri dituen kontzertuen sarreraren salmentak piztutako zurrunbiloaren ondotik, uda honetarako kontzertu erraldoi bat prestatzen dabilta. Ordu gutxitan sarrera guztiak amaituko ez direla bermatuko duen kontzertu erraldoia. Lekunberriko inauterietan kontzertu ederra eskaini zuen taldeak. Bere lehen kontzertua eman zuen leku berean, baina oraingo honetan jendez goraino beteta. Horra hor irudiak!



Talde lana

Kaixo irakurle. Saiatzen naiz aldi oronigan bizirik dagoen zerbaiten inguruan idazten, azken boladan zer edo zer berezia esan didanari buruz. Buelta batzuk eman ondoren, oraingoan, talde lanaz hitz egitea erabaki dut. Oharkabean bizitzan zenbat talde ezberdinetatik pasa naizen orain ari naiz ohartzen, bakoitza bere ezaugarriekin, bere helburuekin, bere gatazkekin... Taldeen inguruan ezagutu beharreko mila gauza daukela ikasten ari naiz, hauetaz ohartuta eta horren arabera funtzionatuta, taldeak eta norberak askoz hobeto funtzionatzen duelarik. Goazen ba honen inguruan pixka bat aritzera.

Gizartean, berez bagaude talde mota batzuetan, guk aukeratu ez ditugunak: familia, herria, eskola... Horietan funtzionatzeko moduak daude, batzuetan gustatuko zaizkidanak, besteetan ez, baina aldatzeko zailak direnak. Normalean talde hierarkikoak dira, non aginte bat dagoen eta taldeak horren agindurak betetzen dituen. Agintariak benetan taldearen onenaren kezka badu, zorionekoak denak, bestela, bere onerako egingo ditu gauzak eta taldeak ordainduko du hori. Baina ez da oraingoan talde mota hau interesatzen zaidana.

Talde aukeratuak interesatzen zaizkit, gure borondatez sartzen garenak, eraikitze indarra eta gaitasuna duten talde horiek eta guk geuk antolatu behar ditugunak. Ondorioz, zailtasun estrak dituzte, orokorrean, ez gaudelako ohituak talde dinamika antolatuetara. Horrelako taldeak dira musika taldeak, au-



zokide taldeak (hauek aukeratuak ez diren arren osotara), proiektu sortzaileetako taldeak... Jakintza batzuk argiak diruditen arren, errepasatu nahi nituzke zuekin, ea zer iruditzen zaizkizuen.

Aurreneko gauza da jakitea taldea nork osatzen duen eta zein modutan hartuko duen parte bakoitzak taldean. Auzokide komunitate batean adibidez, zein garen, nor etorri ohi den bileretara, nor ez... Gauza bat da nola behar lukeen eta bestea da nola den. Noski, ezinbestekoa da jakitea zein den taldearen helburua, zergatik sortzen den talde hori edo zein den talde horren ardura amankomuna. Adi ibili behar da hemen, askotan taldekide batek gauza bat uste duelako eta besteak beste bat, eta hortik datoz arazo asko. Jakin behar da zer den talde horretan ezinbestekoa (musika talde bat badugu, zein izango den entsegu maiz-

tasuna edo zein instrumentu behar ditugun) eta zer izango den aurrera begirako "amets" bat (kontzertuak egitea, diskoa grabatzea...).

Batzuetan "gezur" bat egoten da pentsatuz taldeko guztiak berdinak garela. Uste dut hori inoiz ez dela horrela. Ez gara berdinak, taldean leku ezberdinetan gaudelako, hori errealitatea den heinean, orekatzeko orduan garrantzitsua da ere. Ezinbestekoa da talde horren funtzionamendua zehaztea, zein ardura dauden eta nork hartuko dituen, nola orekatuko den hori partaideen ezaugarriekin. Taldekide batek besteak baino ardura gehiago badu eta taldetik gutxiago jasotzen badu edo aldaketa ez badago orekatua, horrek desoreka ekarriko dio taldeari.

Eta azkenik, komunikazioa. Iritzi guztiak entzunak izan behar dira taldean, erabakia horiek denak kontutan hartuta hartu beharko dira, batzuetan adostasunez, besteetan bozketaz... Baina iritziak ez dira eztabaidatu behar, arrazoiak bai. Gure musika taldean, niretzat agian garrantzitsuenak diskoa ateratzea da, bestearentzat kontzertuak egitea, ez da bat bestea baino hobea. Aldiz, zenbat diru aurreratu behar dugun eta zergatik, bai, hori arrazoitu eta eztabaidatu egin behar da. Konfiantza giroa landu behar da ideien balioa ikusteko taldearentzako. Iritzien eta arduren oreka ere ezinbestekoa da. Eta hartutako erabakiak bete.

Tresna boteretsua da taldea, frustragarria ere izan daitekeena. Jarraituko al dugu ikasten? Animo beraz talde lanetan!



Zabal

Eskola garraioaren gatazka amaitzear?

Ongibidean martxoaren amaiera aldera behin-betiko onartuko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Eskola Mapa berria. Onarpen horrekin, Leitzako Amazabal Institutua Ibarberri Ikastetxeko erreferentziako zentro bilakatuko da 2019-2020 ikasturtetik aurrera. Amazabal Institutuaren aldeko gurasoen Plataformak pozik hartu du kaleratzearen berria.



Hautsak ederki harrotu zituen gaia dugu Ibarberri Ikastetxeko erreferentzia zentroarena. Hamarkada oso bat eman dute Lekunberri eta Larraungo zenbait familiak aldaketa hori lortzeko borrokan eta azkenean, badirudi, Nafarroako Gobernuak arrazoi emanen diela.

1996an onartutako Foru Dekretu batek, aldaketak ekarri zituen urtebete lehenago onartutako eskola mapan eta Biurdana bihurtu zen Lekunberri eta Larraungo ikasleentzako erreferentzia zentroa. Geroztik, eta hasierako urteetan tantoka bada ere, igotzen joan zen Amazabal hautatzen zuten ikasleen ehunekoa. 2013an 21 ikasletik 20, Leitzako institutura joatera iristeraino. Ordutik, protzentaje hori mantendu egin da eta eskola garraioaren kudeaketa jasanezina bihurtu da familia eta udalentzat.

2014ko ekainaren 27an, Lekunberriko Udalak deitutako herri galdeketa egin zen eta %62,26k Biurdanaren alde bozkatu zuen. Amazabalen aldeko plataformako kideek galdeketa iruzur hutsa izan zela salatu zuten, besteak beste, Lekunberriko Udaleko ordezkariak eskeini zituzten bi aukerak oso desorekatuak zirelako eta A ereduan ikasten zuten familiei ere bozkatzeko eskubidea eman zietelako. Nahiz eta haiei ez zien eragiten, haiek ziurtatua baitzuten Iruñerako garraioa.

Kontuak kontu, geroztik jasotako datuak ez datoz bat, galdeketa hartan herritarrek bozkaturakoarekin. Izan ere, familia gehienek Amazabalera

164 ikasle joan dira azken hamar urte hauetan Ibarberritik Amazabal Ikastetxera DBH-ko bigarren zikloa egitera

IKASTURTEA	IKASLE KOP.	LEITZA	BIURDANA	BESTEAK
2018-2019 Promozioa	30	28	2	
2017-2018 Promozioa	20	17	3	
2016-2017 Promozioa	21	19	2	
2015-2016 Promozioa	22	20	1	1
2014-2015 Promozioa	19	18	0	1
2013-2014 Promozioa	23	16	3	4
2012-2013 Promozioa	20	19	0	1
2011-2012 Promozioa	20	10	7	3
2010-2011 Promozioa	21	13	7	1
2009-2010 Promozioa	13	4	6	3
GUZTIRA	209	164 (%78,46)	31 (%14,83)	14 (%6,69)

joatea hobetsi dute geroztik. 2016ko apirilean, Udalek gaiari irtenbidea ematen ez zietela ikusita, Guraso Elkarteak proposaturik, Hezkuntza arloko Mahaia osatu zen, Larraungo eta Lekunberriko udaleko alderdi guztiekin, Eskolako Zuzendaritzarekin eta gurasoen ordezkariarekin. Hauek ziren helburu nagusiak: Nafarroako Gobernuari zegokion ardura har zezala eskatzea, Udalen eta familien zama ekonomikoa arintzea eta familiei berdintasunez aukeratzeko askatasuna bermatzea. Lehen bilkura hartan, matrikulazio datuak argiak zirela ikusita eta helburu horiek betetze aldera, epe ertainean erreferentzia zentroa aldatzea zentzuzko erabakia izango zela adierazi zuten partaide guztiek.

Mahai horrek bide motza izan zuen ordea. Plataformako kideen arabera, Lekunberriko Taldeko ordezkariak irtenbide adostua bilatzeko aukerari uko egin zioten, "beren boto-emaeleek ez omen zutelako uler-tuko, nahiz eta haurrak Amazabalera bidaltzen dituzten artean beren boto-emaeleak ere badauden, jakina. Eta horientzat ere ekonomikoki hobea izango zen erreferentzia zentroa aldatzea, urtean 400-500 euro aurreztuko luketelako jantokian".

Handik aurrera, garraioaren gaiari konponbidea emateko funtzioa eskuratu zuen Mahai horrek. Tartean, Irurtzungo Udalak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin zuten hitzarmena bertan behera gelditu zen eta Iruñerako garraioa bermatzeko bi

ERREFERENTZIA ZENTROA EZ ALDATZEAK URTE HAUETAN SORTUTAKO GAINKOSTUAK:

Nafarroako Gobernuari zegokion...

- Lekunberriko eta Larraungo Udalek bere gain hartutako 150.000 eurotik gorako gastua.
- Gurasoek jangelarako ordaindutako 100.000 eurotik gorako gastua.

aukera ezarri ziren mahai gainean: Irurtzungo, Arakilgo, Larraungo eta Lekunberriko udalek elkarrekin egitea hitzarmena edo Larraungo eta Lekunberriko udalek euren arteko hitzarmena egitea. "Lehenbizikoa onartu balute, diru dezente aurreztuko zuketene gure bi udalek, baina ez ziren ados jarri Irurtzungo udalarekin. Zergatik? Autobusa ez zelako iritsiko San Fermin ikastolara, bertara. Aurreko geltokian utziko zituen ikasleak, eta han San Fermin ikastolara zihoan autobusa hartu beharko zuten (eta ordaindu). Familia horiei gasturik ez eragiteko, bi udalei eta bailarako herritar guztiei garestiena aterako zitzaie aukeraren alde egin zuten Lekunberriko Taldeak, Larraundarrek eta Larraungo Elkarteak".

Horrez gain, Larraungo Udalak aurrekontuetatik kendu egin zuen Leitزارako garraioaren diru atala.

Garraiorik gabe gelditzera zihoazen ikasleen gurasoek Larraungo Udalera jo zuten eta Udalak Lekunberritik Leitزارako garraioa soilik ordainduko zuela adierazi zien. Egoera horren aurrean, gurasoek eurek, Hezkuntza Departamentura jo zuten eta familia bakoitzari diru-laguntza bat eman zien. "Larraungo gurasoek diru-laguntza Udalari ematea erabaki zuten autobusa herri guztietara iritsi zedila bermatzeko. Lekunberriko familiek ere jaso zuten diru-laguntza hori, eta horietako gehienek ere euren udalari itzultzea erabaki zuten. Hortaz, azken bi ikasturteetan, bi udalek 15.000 euro inguruko diru atal bat jaso dute gurasoengandik".

Foru dekretu batek Iruñera bidaltzen zituen ikasleak. Horietako askok Leitزارako hautua egiten zuten eta Nafarroako Gobernuak ur-

Dena ongi bidean, martxoaren amaiera aldera behin-betiko onartuko da Nafarroako eskola mapa berria. Arg: Labrit.



Amazabal ez denez, legez dagokion erreferentzia zentroa, Nafarroako Gobernuak jantokirako ematen duen diru-laguntzarik gabe gelditzen baitira. *"Batzuek ezin izan diote gastu horri aurre egin eta badira euren seme-alabak tupperrarekin bidali behar izan dituzten gurasoak ere"*.

Eta Batxilergoko garraioa Nafarroako Gobernuari ordaintzea ez badagokio ere, DBH-ko ikasleek Amazabal izan balute erreferentzia zentroa, ziur aski urte hauetan batxilergoko ikasleek ere ikastera joateko buruhauste gutxiago izango zituzten. *"Gurasoak antolatuta ez balira ezinezkoa izango litzateke. Batzuek, Leitzara lanera zihoazen herritarrekin bidaltzen zituzten goizean, beste batzuk eurek kontratatutako taxian... Eta buelta garraio publikoan"*.

teetan ez du deus ere egin egoera konpontzeko.

Eta kaltetuenak herritar guztiak izan direla esan liteke. Gure Udalak 30.000 eta 50.000 euro arteko gailkostu bat ordaintzen ibili dira urtero. Eta bihen bitartean, Nafarroako Gobernuak bi edo hiru ikasleren garraioaz baino ez da arduratu eta muzin egin dio berea zen eskumen eta betebeharrak egikaritzeari.

Bestalde, urte hauetan euren seme-alabak Amazabalera bidaltzeko erabakia hartu duten gurasoentzako ahalegin ekonomiko ikaragarria izan da. Derrigorrezko Hezkuntzako bigarren zikloa Amazabalen egiteko, ikasle bakoitzeko 1.000 euro jarri behar izan dituzte jantokian bazkaltzen gelditu ahal izateko. Garraiatuak izan arren,

Ikusteko dago 2019-2020ko ikasturtean Ibarberriko erreferentzia zentroa zein izanen den. Hezkuntza Departamentuak onartutako Eskola Mapa dagoeneko Gardentasun Atalean dago eta, helegiterik aurkezten ez bada, Nafarroako Eskola Kontseiluak onartzea baino ez da faltako. Amazabalen aldeko gurasoen plataformak urte hauetan guztietan eskola garraioaren arazoari konponbidea emateko lan egin duten guraso eta herritarrak zoriondu nahi ditu. Eta bestalde, instituzioek arduragabekeriak jokatu dutela salatu dute. *"Gure eskualdean gatazka politiko bat sortzeraino iritsi zen eta hein batean itsututa egon gara denok. Baina, zorionez, gatazka hau amaitzeaz dela dirudi"*.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

“2.000 euro ordaindu ditugu gure seme-alabak jangelan gelditu ahal izateko”

Ane Alustiza uitziarrek bi alaba izan ditu Amazabal Institutuan. Bere hautua izan zen Olatz eta Ainhitze alabak Amazabalera bidaltzea. Zazpi kilometro baino ez daude Uitzitik Leitzara. Aldiz, legeak Iruñera bidalarazten zituen eta bertatik bertara zuten institutu publikora joateko laguntzarik gabe uzten.

Nola moldatu zineten lehen urte horietan?

Nire alaba zaharrena, Olatz, 2011-2012 ikasturtean hasi zen Amazabal Institutuan, hamalau urterekin. Ikasturte hura ongi joan zen. Betelutik zertorien autobusean lekua zegoen eta Uitzitik pasatzen zenez, zortea izan genuen. Eta Leitzako Udalak emandako diru-laguntzari esker, jangela ordaintzeko ere nahiko ongi ibili ginen. 24 euro ordaintzen genituen hilean.

Baina, hurrengo ikasturtean, gauzak aldatu egin ziren...

Bai. Askoz ikasle gehiagok erabaki zuten Leitzara joatea eta ezinezkoa zen Beteluko autobusean denak sartzea. Larraungo Udalarekin hitz egin genuen eta garraioa jarri zigun, baina gure seme-alabak zegokigun erreferentzia zentroa eramaten ez genituenez, ez zegokigun Nafarroako Gobernuak jangelarako eman ohi duen diru-laguntza. Eta urte hartan oso-osorik gurasook ordaindu behar izan genuen jangelako gastua. Hilean 63,3 euro. Eta hala ordaindu behar izan dute geroztik Amazabalera joan diren ikasleek ere.

Eta Larraungo Udalak ez zizuen laguntzarik eman gastu horri aurre egiteko?

Garraioa ordaintzeko prest agertu zen, baina jangelakoa ez.

Batxilergora zihoazenei diru-laguntzarik ez bazegokien ere ez da erraza izan...

Bai. Ikasturte hasiera iristen zen eta

gu geu moldatu behar izaten ginen, egoera berean zeuden ikasleentzako garraioa antolatzeko. Ni nahiko ongi moldatu nintzen. Leitzan lan egiten zuten herritarrekin bidaltzen nuen alaba eta ezin zenean, neronek eramaten nuen goizetan. Eta ondoren, lineako autobusean bueltatzen zen. Leitzaran autobusa hiru eta erdietan pasatzen da Leitzatik.

Hala ere, ez zara zure alabak Amazabalera bidaltzeaz damutu...

Ez, ez zuen zentzurik Iruñera bidaltzeak, ondoko herrian aukera izanik. Eta gainera, positiboa izan dela uste dut. Lehen larraundar askok ez zuten ia harremanik Araitz, Betelu, Leitza eta Goizueta aldeko jendearekin. Eta azken urte hauetan izugarri estutu dira eskualdeko harreman horiek. Elkar ezagutzen dira, lagunak dira eta beste giro bat sumatzen dut. Festetan ere izugarri nabaritzen da. Harreman horiek modu naturalean hasi dira zabaltzen.



Ane Alustiza, erreferentziaren zentroaren gatazkaren ondorioak jasan dituen ama. Arg: Labrit.

IHAUTERIAK

Kolorez betetako ihoteak

Inauterien hilabetea izan da otsailekoa gu-rean. Uitziko ihote goiztiarren ondotik, Betelu, Arruitz, Baraibar eta Lekunberrikoak ospatu ditugu. Aurten gainera, aspaldian ezagutzen ez zen eguraldi goxoak lagun-duta. Horra hor jasotako zenbait irudi!

BETELU



ARRUITZ



BARAIBAR



LEKUNBERRI



“Araitz izenak ezin ditu herri batzuk ordezkatu eta Araizko Udalak beste batzuk”

2017an sortu zen Araizko zapoak sor-marka Araitzen lan eta bizi batzordearen eskutik. Beteluko Udala ez dago ados “Araizko zapoak” sor-markak “Araitz” izena ibar osoa izendatzeko erabiltzearekin.

Zergatik ez dago ados Beteluko Udala izen horrekin?

Araizko Udala gure ibarreko eremu geografikoa, “Araitz” izendatzea bultzatzen ari da. *Araitzen lan eta bizi* ekimenak eta *Araizko zapoak* sor-marka Araizko Udaleko herrietara ez ezik Betelu, Errazkin eta Lezaetara ere zabaltzen ari da. Araitz gaur egun, ibarreko udalerrietako bat da, berari dagokion esparru geografikoarekin (Arribe, Atallu, Azkarate, Gaintza, Uztegi eta Intzak osatzen dutena), bere biztanleriarekin (araitzarrak), bere posta-kode propioarekin etab. Gauzak horrela, beste lurralde bat eta beste biztanle multzo bat izen berdinarekin izendatzen saiatzea nahasgarria litzateke bai bertako biztanleentzat eta baita kanpokoentzat ere.

Beteluko Udalak sor-markaren jaiotzan edo ibilbidean parte hartu al du?

Ez da elkarlana bultzatzeko inolako ahalegin seriorik egin. Aldebakarreko ekimenari ekin diote ibar osoaren izenean. Herritar gisa parte hartzea proposatu izan digute beti, ez udal gisa. Eta Beteluko Udalari gaia interesatzen zaio, baina lehen bileretatik hasita, “*Araitzen lan eta bizi*” jarri zitzaion izena batzordeari. Eta horren inguruan hasieratik ohartarazi genien.

“Araitz izena erabiltzea sor-markan nahasgarria izan daiteke”

Gai konplexua da, Betelun bertan badirelako araitzar izatearekin identifikatzen direnak eta ez direnak...

Bai, baina gauza ezberdina da. Gauza bat da pertsona batek Araizko ibarrekoa dela esatea eta beste bat sor-marka bat sortzea, bozgorailuen bitartez zabaldu, inprimatu eta hedabideetan kaleratzeko. Horrela nahitaez herritar guztiei identitate bat inposatzen ari zara. Gaur egun Betelun denetarikoa iritziak aurkituko dituzu, horrek ez dio inori minik ematen. Baina izen hori daraman sor-marka bat sortzeak etorkizunean eragina izango du ziur. Niri, adibidez, “Araitz” izena polita iruditzen zait, baina ez naiz araitzarrak sentitzen. Araitzarrak, Araizko udalerrikoak direla iruditzen zait eta araitzar askok ere, modu berean pentsatzen dutela uste dut. Horregatik, lehenengo sektorea eta turismoa bultzatzeko ekimen hau, zuzena ikusten dugu Araizko udalerriko herrietan garatzeko. Bestalde, “Araitz” izena ibar osoa izendatzeko erabiltzekotan,



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Araizko Udalak berak bere izena aldatu beharko luke, bestela, Araizko Udala, Araizko udala ez den beste erakunde batetan bihurtuko litzateke. Surrealista iruditzen zaigu!

Cederna Garalurrek Mendialdeko hainbat udalekin hitzarmen bat sinatu berri du lehen sektorea bultzatzeko... Beteluko Udalak uko egin dio lankidetzari horri.

Desadostasun honek ere zerikusia izan du, baina horrez gain, urtebeteko hitzarmen baterako gehiegizko egitura iruditzen zaigu proposatzen dena. Gainera, aurten hauteskunde urtea izanik, ez genuke aukera behar bezala aprobetxatuko. Agian, gai horrekin lanean hasita dauden

udalentsako interesgarria izan daiteke, baina guretzat ez. Gainera, 1.500-2.000 euro arteko kostea aurreikusten genuen eta dauzkagun obrekin nahiko estu gabiltza momentu honetan.

Zein izan daiteke irtenbidea "Araizko zapoak" izenak sor dezakeen nahasmena ekiditeko?

Guretzat zentzuzkoena zera litzateke: ekimena, txalagarria iruditzen zaiguna, Araizko udalerraren eremuari lotzea eta bertan garatzen saiatzea. Bada nahiko sektore indartsua Betelukoarekin alderatuta, eta ondorioz bada zertan saiatu eta zertan erakutsi ekimenak ekar ditzakeen emaitzak. Gero, beti egonen da aukera baila-



ra osora hedatzeko eta horretarako, hainbatetan egin den bezala, izen amankomuna aukeratzeko: Araxes Garaia, Mailope... Araizko Udalak gai honen inguruan, badu zeresana eta ardura. Eta herritarrek ere zerbait izanen dute esateko!



GARBIGUNE IBILTARIA

**ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES**

**Marxoak 22, ostirala, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da.
Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:**

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

**Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren
ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:**

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30





Bandioa

Hiruki formako tellatu gorrie; alde batean tximinie. Tellatu hirukien azpin etxe koadro-koadroa, harrizkoa. Ixkin-harri grisek paite zuri-zurietzun gañean, eta frenteko paite zurien erdi-erdin etxe sarrerako atea. Atean alde banatan eurrezko leihoak. Etxean inguru guztin belar berdea, ta belarran gañean re loreak; leihotakoak bezalakoak. Ondoan beste etxe laukiet tellatu hirukiekin, baño hau ttikigoa. Hau zakurrentzako.

Hauxe bost urteko umetxo batek indako marrazkie. Hauxe gaur eun oanyo bost urteko eozin umek dibujatzeoan etxe tipoa, bizi pixu bateko hiruarrean, bizi baserrietea, bizi 2.Bn o bizi dozena bat etxe berdin ditton errenka bateko aurrenekoan.

Honeño normaltasun onartue, baño marrazkitxo honek bazittun oso deigarrik in zazkiten beste elementutxo batzuk re: Tellatu azpittik txirrista muuko aldapa luze luzeat. Ta paite koadroan behiko alde batean borobil beltz bat; zulo baten muukoa.

-Ehhhhh.... hok zer dee?

-Baaaa... hau bandioa (tellatupetik ateatze'an aldapa behatz puntte ttikiekin zapaliz). Bestela nondik sartu behar due belarra ta nondik sartu ya ibiltzen ez deen trasteak? Bueno, ta batzutan jendea're sartzea bandiotik etxea. Peru ta bandiotik sartzen dee, attuna eta amonan etxeko ganbaan daukuelako oain etxea.

-Ahhhh....

-Ta beste hau garajeko sarrera da. Etxe honek ikullue dauke behian eta behirago garajea. Boton bati eman ta atea iikitzen zaio ta hortik sartzen dee kotxeak garajera. Beste ate'atetik tratoreakin ikullue. Ate horrek eztauke botonik.

-Hara! Bai etxe modernoa!

-Bai, bueno, baserriet da, baño jende asko bizi da. Batzuk bandiotik sartzen dee ta bestela beste pixutakoak aszensoretik. Baño marrazkin ez da ikusten barrunen eoten delako.

-Ahh...ze politte!

Umeak ez duela gezurrik esaten eta gure baserri zarrak behar berrita moldatzen ai geala. Marrazki hau ikusita eztakit ba nik... beste hainbatetan bezalaxe etxeko bandioan esei ta pare bat buelta eman beharkoazkiot kontu honi; marrazki honi!



Lekunberriatik Lekunberrira ibilbide sortaren lehen etapa

Lekunberriatik Lekunberrira izeneko hainbat ibilbide aurreikusten ditu Ttuturre Kirol Elkarteak datozen hilabeteetarako. Joan den otsailaren 24n egin zuten lehen etapan. Lekunberriatik atera eta Etxarri eta Aldaztik barna Ireber eta Ernaitzu igo zituzten eta ondoren, Otsolako belardi zabalak zeharkatu ondoren, Gorostietako gainera iritsi ziren. 18 kilometro inguruko ibilbidea izan zen, bost ordutan egin zutena. Ondoren, autobus hartu eta Orokoietan elkartu ziren bazkaltzera.

Datorren martxoaren 31n izanen dute hurrengo ateraldia. Gorostietatik Belaterainoko zatia egingen dute. Eta apirilean berriz, Belatetik Urkiagaraino joanen dira.

Gainera, joan den otsailaren 3an, Ttuturreko kideek urteroko bazkarian elkartu ziren Oderizko Juanluzenea Sagardotegian. 50 lagun inguru elkartu ziren eta bingoan ere aritu ziren. Lorea ljurkok irabazi zuen saria!

Lekunberriko
31. Legoa
martxoaren 23an
izanen da



Datorren martxoaren 23an, larunbatarekin, izanen da 31. Lekunberriko Legoa. Arruizko Txikitoren omenez ospatu ohi den lasterketako antolatzaileek iaz egindako aldaketei eutsi diete eta aurtengoan ere proba arratsaldean izanen da. Haurren lasterketa arratsaldeko 16:00etan izanen da eta proba nagusia jarraian egingen da. Dagoeneko izen emateko epea zabalik dago www.kirolprobak.com atarian. Anima zaitetz eta parte hartu!

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
salxitxak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

Martxoan zehar inkestak egingen dira baserriz baserri

Garazi Perez de Larraya eta Lorena Donazar iruindarrek euren ikasketa amaierako lana Araizko Zaporeak egitasmoak biltzen dituen herrietan (Araitz udalerrian, Errazkinen eta Lezaetan) lehen sektoreak bizi duen egoeran oinarrituko dute. Izan ere, datozen aste hauetan baserriz baserri ibiliko dira inkestak egingen. Batez ere ekoizleak diren baserri aktiboetan informazioa jasotzea dute helburu.

Araizko Zaporeaken erronka nagusietako bat lehen sektorea eta elikadura burujabetza sustatzea da eta beharrezkoa ikusi dute inguruko errealitatea zein den ezagutzeko diagnostiko bat egitea.

Joan den urtean, Araizko Zaporeak egitasmoko kideak, Cederna Galarur Elkarteko teknikaria den Elena Irigoienekin laguntzarekin INTIA eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin harremanetan jarri ziren lanketari hasiera emateko.

Baserriak zenbat lur dituen, zer lantzen den, ekoizten dena autokontsumorako den ala saldu egingen den, norbait etxera laguntzera etortzeko prest agertuko litzatekeen, erabiltzen ez dituen lurak alokatzeko edo uzteko prest egonen litzate-

“Baserriak bideragarriak izan daitezten lortu behar dugu”

keen... Halako galderei erantzun behar harko diete baserritarrek.

Elena Irigoien: *“Inkesta bakarra izan arren, ondorioak bi arlo ezberdinetan aterako dira. Alde batetik, ezagutzeko zein transformazio egingen den*

eta autokontsumorako diren edo nola saltzen diren ekoizten diren produktu horiek. Eta bestetik, gaur egun landa eremuan baserriak eta lurak husten ari diren bitartean, badira ere lehendabiziko sektorean lan egiteko interesaturik dauden gazteak, baina lurrik edo baserririk ez dutenak”.

Diagnostiko honekin, bertako baserrien egoera eta jabeen disposizioa ezagutzeko aukera izanen dugu eta baserritarrak interesa izanez gero, belaunaldi berriek baserriarekin edo



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTÉTICA · HORTZ ESTETIKA
Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

lurrekin aktibitatea jarraitzeko aukerak sortzea da helburua.

Elikadurari dagokionean, bertan ekoizten dena eta ekoizten den horretatik zer saltzen den ezagutzeak, salmenta zuzeneko sareak sortzea ahalbidetuko du etorkizunean.

Elena: "Iruñeko Udal haur eskoletan jada bertan ekoizten diren produktuekin prestatutako otorduak eskaintzen dira. Eta INTIA n dagoeneko lanean dabilta egitasmo hori Nafarroa osora zabaltzeko, hau da, jantoki kolektibotatik bertako produktuak kontsumitzeko. Baina lehenik ezinbestekoa da ezagutzea zer ekoizten den tokian toki eta nola bideratzen den".

Araizko Zaporeak egitasmoko ki-deen ustez, egokiena bertan ekoizten dena bertan saldu eta kontsumitzea litzateke eta horrekin bertan lan egin eta bizi ahal izateko aski errentagarri izan dadila lortu behar da.

Lehen sektoreari bultzada bat emateko hain zuzen ere, Cederna Garalur Elkarteak hitzarmen bat sinatu du Mendialdeko hamar udalekin langile bat lanaldi erdian kontratatu eta lehenengo sektorea sustatzeko.

Elena: "Nekazaritzak azkeneko 20 urte hauetan hartu duen norabideak (inbertsio handiak, industria-

lizazioa, eredu intentsiboa...) arazo asko ekarri dituela ikusi da eta aurrera jarraitzeko ezintasun egoera hori oso zabalduta dago. Eta lehenengo sektoreak duen arazoa ez da egun bate-tik bestera konponduko, baina denon erantzukizuna da eztabaida ireki eta konponbideak aurkitzea. Ekoizleek ez ezik, erakundeek eta kontsumitzaileok ere badugu zeresana. Ardura ere denona da".

Inkestak guztiz anonimoak izanen dira, eta ezinbestekoa izanen da baserritar guztien parte-hartzea.

Gaiur Zubillaga, Araizko Alkatea: "Ez die lan kargarik edo konpromisorik suposatu behar inkestan parte hartzeak. Ez dezatela beldurrik izan eta parte hartu dezatela. Nekazariak eta baserritarrak bizi duten egoera zailaren ondorioz ezkorrak izan ohi dira etorkizunarekin, baina beharrezkoak ditugu, elikadura osasuntsua eskura izateko eta gure paisaiak eta geure herriak bizirik iraunarazteko".

Maidier Agirrebarrena, Araizko zinegotzia eta Araizko Zaporeak egitasmoko kidea: "Baserriak bideragarriak izan daitezten lortu behar dugu. Kontsumo sareak eraiki behar ditugu, bertan ekoizten dena saldu, baserritik bizitzea bideragarri bihurtzeko".

Araizko Zaporeak egitasmoari beste bultzada bat emanen diote martxoan zehar baserriz baserri eginen diren inkestekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ingeniaritza agronomoko ikasleak dira Garazi Perez de Larraya eta Lorena Donazar eta beraiek arduratuko dira bertako lehen sektorearen errealitateari buruzko diagnostikoa egiteaz. Gainera, Araizko Zaporeak gogoeta saio bat eginen du datorren martxoaren 31n Araizko udaletxean.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK.
KOPA BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Berotu motorrak lasterketarako 21. Korrika Kulturalarekin

Joan den hilean egin zuen Larraungo Korrika Batzordeak aurtengo Korrikaren aurkezpena Kantuan. Bertako talde eta eragile ezberdinak igo ziren taula gainera, euren erakustaldia egin eta dagoeneko euskaltegian nahiz webgunean salgai dagoen Korrika arropa aurkeztera. Korrika Kulturalaren baitan hainbat jarduera antolatu ditu batzordeak martxoaren 10etik hasi eta lasterketaren egunaren bezpera bitarte. Txokolipuinak, Arnasguneen erakusketa, Bertso-bazkaria Mailen Lujanbio eta Julio Sotorekin, Kantu poteoa... (Egitarau osoa 32. orrialdean). Gogoratu, Korrikaren 21. lasterketa apirilaren 4tik 14ra bitarte izanen dela. Garesen hasi eta Gasteizen amaituko da Euskal Herria zeharkatu eta gero. Apirilaren 8an, arratsaldeko 19:00ak aldera iritsiko da Leitzatik Uitzira eta handik Lekunberrira jaitsi eta Mugirotik barna Urritza aldera jarraituko du ibilbideak. Korrika lagundu nahi duzu? Hurbil zaitez Larraungo AEK euskaltegira eta egin zaitez Korrika laguntzaile 12 euroren truke edo arropa erosiz.



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

urrutia enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

MARTXOAK 8 EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA - LEKUNBERRI ETA LARRAUN:

08 |

Gazteek bultzatuta egunean zehar mural bat margotuko da. 12:00 Kontzentrazioa Lekunberriko udaletxearen parean. Ondoren, Mendukilo kobetara bisita berezia egingen da eta jan edana ere izanen da. 19:00 Denok Iruñeko manifestaziora. Autobusa jarriko da 18:00etan, 5€ helduak, 3€ ikasle eta langabetuak. (Izena eman 948 60 45 82 telefono zenbakian). 19:00 Antzerkia Kantinan: "Viaje a través de la Historia de la mujer".

09 |

Afaria Euskalduna Tabernan (eman izena 948 60 45 82 telefono zenbakian).

12 |

20:00 Pintxo dastaketa Kattagorri elkartearen (19:00etan pintxoaren prestaketa eta 20:00etan pintxoaren aurkezpena).

16 |

20:00 "Esentzia" kontzertua Aralar Musika Eskolako abesbatzaren eskutik, Lekunberriko kiroldegian.

30 |

10:00 Hitzaldia Lekunberriko udaletxean: "Gure neskak: Larraun eta zientzia elkartuz". Kultur bidaia Los Arcoseko Valcarlos upategira (eman izena martxoaren 21a baino lehen: 948 60 45 82).

31 |

10:00etan udaletxean, "Adimen emozionala: bizitza aldapa goraez giteen zaizunean"

11-17 |

Euskararen arnaguneei buruzko erakusketa izanen da Mitxausean.

Martxoan zehar, emakume historikoen panelak izanen dira ikusgai herrian zehar, Ibarberri Ikastetxearen eskutik.

SALGAI

Elurretara joateko buzoa salgai. Txukun-txukuna, ia erabili gabea. Taila: 4 urte. 10 eurotan salgai. Interesa baduzu deitu 639 86 12 57 telefonora.



ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es



KORRIKA KULTURALA

MARTXOAK 10

16:30ean

Jubilatuen elkartean
TXOKOLIPUINAK

MARTXOAK 11-17

Mitxausenean
ARNASGUNEEN ERAKUSKETA

MARTXOAK 24

16:30ean

Jubilatuen elkartean
TXOKOLIPUINAK

MARTXOAK 31

Astitzen
MENDUKILON EKITALDIA
KORRIKA BERTSO BAZKARIA *
MAIALEN LUJANBIO ETA JULIO SOTOREKIN

APIRILAK 7

11 :45ean

Lekunberriko Herriko Plazan
KANTU POTEOA

APIRILAK 8

KORRIKA KARRERA

* Sarrerak salgai: Larraungo AEKn eta Astizko aterpean